



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2014ko MAIATZAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2014ko maiatzaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Leire Otegi Elola  
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
2014ko maiatzaren 6an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alkizako udalaren arteko hitzarmenaren onspena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.**
- 5. Informazioa lagatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta finantzen departamentuaren eta Alkizako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onspena, hala bada.**
- 6. Alkizako herritarrei haurreskola zerbitzua erabiltzeagatik diru-laguntza berezien oinarrien onspena, hala bada.**
- 7. Alkizako herri ostatuako zerbitzu publikoaren ustiakuntza, luzatzeko onspena, hala bada.**
- 8. Alkizako Herri Ostatuaren errentamentu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

pleguaren onarpena eta lehiaketa irekirako deialdiaren onespena,  
hala bada.

9. Beste batzuk.

10. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko maiatzaren 6ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

18/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 14koa, G.I. jaunari baimena ematea, pinudi bat atera behar duenez, hauek garraiatzeko, herri bidea erabiltzeko, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.802,81€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.790,53€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.825,56€
- KEY-LAN	148,04€
- ARGITU	213,73€
- TOLOMENDI	122,40€
- EINBER	733,38€
- EBA ERKIZIA	461,70€
- ZURI ARRAIN	671,91€
- LABUR	202,15€
- REPSOL	519,47€
- REPSOL	12,63€
- REPSOL	297,03€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- REPSOL	308,05€
- AUDAX	731,51€
-AUDAX	211,59€
- GAS NATURAL FENOSA	160,91€
- GAS NATURAL FENOSA	140,84€
- GAS NATURAL FENOSA	270,63€
- GAS NATURAL FENOSA	414,44€
- GAS NATURAL FENOSA	466,85€
- GAS NATURAL FENOSA	585,11€
- IBERDROLA	120,60€
- MOVISTAR	208,64€
- MOVISTAR	199,03€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.619,54** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatu duen hitzarmena, Alkizako Udalarekin sinatzeko, non mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko oinarriak finkatuko diren.

Gaia azterturik, Udalbatzak honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alkizako Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **INFORMAZIOA LAGATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZEN DEPARTAMENTUAREN ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoa dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....  
5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

baimenik beharko. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko.”

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

“1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....  
b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

.....  
d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....  
j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....  
l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

.....”  
Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzaren hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Udalbatza honek, Alkate-Lehendakariaren proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU:

LEHENEA: Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Alkizako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRITARREI HAURRESKOLA ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK DIRU-LAGUNTZA BEREZIEN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkate-jaunaren eskariz Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak idatziriko "Alkizako herritarrei haurreskola zerbitzua erabiltzeagatik dirulaguntza berezien deialdiaren oinarri"-en zirriborroa prestatu duela.

Gaia azterturik, Udalbatzarrak ,aho batez, ondorengoa,

### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENA.-** "Alkizako herritarrei haurreskola zerbitzua erabiltzeagatik dirulaguntza berezien deialdiaren oinarriak" onartzea eta diru-laguntza deialdia burutzea, interesatuek eskaerak aurkez ditzaten.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA, LUZATZEKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2012ko ekainaren 26an ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa I.V. eta D.L. jaunei eman zitzaiela, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 29an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa I.V. eta D.L. jaunei, hemendik aurrera Carolina Sanchez y Otros C.B.-eri urte betez luzatu zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Carolina Sanchez y Otros C.B. osatzen duen kide batek, hau da D.L. jaunak Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketarekin jarraitu nahi duela, aipaturiko C.B. a desegertuaz.

Ikusirik 2014ko urtarrilaren 28an eginiko Udalbatzan, D.L. jaunari ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua sei hilabetez luzatzea erabaki zela, hau da 2014ko ekainaren 30arte.

Ikusirik D.L. jaunak asmoa duela 2014ko urriaren 1arte Ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketarekin jarraitzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: D.L. jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua hiru hilabetez luzatzea (2014ko uztailaren 1etik irailaren 30arte).

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri D.L. jaunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ERRENTAMENDU ETA USTIAPENA, LEHIAKETA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO, EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO BALDINTZEN PLEGUAREN ONARPENA ETA LAHIKETA IREKIRAKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik datorren 2014ko urriaren 1ean, gaur egun Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena eramaten duenari kontratua amaitzen zaiola.

Ikusirik, Alkizako Udalak, prestatu dituela Alkizako Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen plegua.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena.

HIRUGARRENA: Alkizako herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onespena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zortzi eguneko epean, publikoan jartzea, interesatuek aztertu, eta behar bada, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten.

LAUGARRENA: Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailen perfilean argitaratzea, interesatuek hogeiki eguneko epean euren proposamenak aurkeztu ditzaten.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

### **9.1. 2014 URTERAKO URA ETA ZABOR TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2014 urterako ura eta zabor taseen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 3tik 28arte.

Aipaturiko epean bost eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- J.M.-eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- C.C. -eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- S.R.-eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- A.P.P. -eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- M.J.O.-eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

## **9.2. EUSKADIKO SAHARUIEN ORDEZKARITZAK AURKEZTURIKO OPORRAK BAKEAN 2014 PROGRAMAREN AZTERKETA**

Ikusirik Euskadiko Saharuien ordezkariak eginiko eskaera, non “ Oporrak Bakean” programaren barruan datozen umeen gastuak finantzatzeko diru-laguntza eskaera egiten duten.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- Alkizara etorriko diren haur saharuien mantenu gastuak bere gain hartzera. Alkizako herrira ez badira etorriko, Alkizako Udalak Aterpeetan egongo diren bi haur-taldeetako haur bat finantzatuko du.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Euskadiko Saharuien Ordezkaritzari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **10.1.TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA**

Ondorengo mozioa aurkezten da:

*“Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.*

*Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduko foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.*

*Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarrietik*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*aurrera. Horrek hauxe zekarren: espezialitateen anbulatoriotik espezialistak desagertzea progresiboki; ospitaleratzeko orduan eskualdeko erreferentziazko ospitalea Asuntzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeko jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.*

*Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxoin-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiarrekoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.*

*Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere, pribatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.*

*Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordera jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:*

- *Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetza sare publikoaren barruan.*
- *Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratzeko 2011 arte espezialitateen anbulatorioan -Tolosalde osoari begira-funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak."*

*Horregatik guztiagatik*

**DEI EGITEN DIEGU ORAINGO UDALBATZA OSATZEN DUTEN  
ALDERDI GUZTIEI JARRERA BAT HAR DEZATEN HONAKO  
PUNTU HAUEN GAINEAN:**

1. *Mantentzea Espezialitateen Anbulatorioaren zerbitzu publikoa, 2011 arte funtzionatzen zuen moduan.*
2. *Tolosaldeak Eskualdeko Ospitale Publikoa edukitzea, Gipuzkoako gainontzeko eskualdeek duten moduan. Horretarako, Asuntzio*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- klínika publikatu egin behar da, gai horretan inplikaturik dauden agenteekin Lan Mahai bat sortu eta gero.*
3. *Eusko Jaurlaritzari eskatzea geldiarazteko Euskal Herrian egiten ari diren pribatizatze ekintzak.*
  4. *Eskatzea Espainiako Gobernuari eta Madrilgo Kongresuari indargabetezko 15/97 Legea, aukera ematen duena pribatizazio esperientzia hauek gauzatzeko.*
  5. *Dei egitea herritar guztiei parte hartzerantz Tolosan, ekainaren 7an, egingo den manifestazioan, lan-mahai bat sortzearen alde."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Udalbatzak, "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE"-ko mozioa, bere osotasunean onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*